## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2933

77/2008 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, toki erakundeen jabetza diren eskola-eraikin publikoak erabiltzeko araubide juridikoari buruzkoa.

Otsailaren 2ko 193/1967 Dekretuaren bidez,- baliogabetuta dagoen abuztuaren 4ko 14/1970 Legeak, Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantziazioari buruzkoak, 4. azken xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera indarrean jarraitzen du dekretu horrek,- onartu zen Lehen Hezkuntzari buruzko Legearen testu bateratuak 51. artikuluan horrela definitzen du eskola-eraikin publikoa: Lehen Hezkuntzako irakaskuntzazerbitzuak hartzen dituena da, maisu-maistren etxebizitzak barne. 51. artikulu horrek hau ere esaten du: eskola-erakin publiko horiek, berorien finantziazioa edozein dela ere, udalerriarenak dira baina Hezkuntza Administrazioaren baimenik gabe ezin izango dira beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili eta udalerriek beren gain hartu behar dute eraikin horien kontserbatze, konpontze eta zaintzearen ardura, baita garbiketarena eta ura, argindarra eta berokuntza hornitzearena ere.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamenduan, eskola-eraikin publiko horiek Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak hartu behar dituzte eta, halaber, aipatutako legearen hamabosgarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen premiei eman behar diete arreta. Zentzu horretan, hamabosgarren xedapen gehigarri honen bigarren atalak hau adierazten du: tokian tokiko udalerriak bere gain izango du Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxeetarako eraikinen kontserbatze, mantentze eta zaintzearen ardura. Eraikin horiek ezin izango dira beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili, Hezkuntza Administrazioak aldez aurretik baimenik eman gabe.

Halaber, aipatutako hamabosgarren xedapen gehigarriaren hirugarren atalak, eskolatze-premiak direla-eta, hezkuntza-administrazioei ematen die Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Heziketa irakasteko asmoz Haur eta Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxeak kokatuta dauden udal jabetzako eskola-eraikinak afektatzeko ahalmena. Kasu honetan hezkuntza-administrazioek beren gain hartuko dute orain arte udalerriek, indarreko legeriaren arabera, ordaintzen zituzten ikastetxe horien gastuen ardura, udalerriek izan dezaketen titularitatearen kalterik gabe. Xedatzen den hau ezin izango zaie, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Hezkuntza Bereziaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten udal jabetzeko eskola-eraikinei aplikatu. Afektazioa partziala iza-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 2933

DECRETO 77/2008, de 6 de mayo, sobre el régimen jurídico para la utilización de los edificios públicos escolares de propiedad de las entidades locales.

El Texto Refundido de la Ley de Enseñanza Primaria, aprobado por el Decreto 193/1967, de 2 de febrero, vigente con carácter reglamentario en virtud de lo establecido en la Disposición Final 4.ª de la derogada Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma educativa, dispone en su artículo 51 que edificio público escolar es aquél que alberga servicios docentes de Enseñanza Primaria, incluidas las viviendas de maestros y maestras. Estos edificios públicos escolares, continúa diciendo el citado artículo, sea cual sea el procedimiento de su financiación, son propiedad del municipio, pero no podrán destinarse a otros servicios o finalidades sin la autorización de la Administración educativa y su conservación, reparación y vigilancia, así como la limpieza y suministro de agua, electricidad y calefacción corresponde a los municipios.

En la ordenación del sistema educativo establecida por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, a estos edificios públicos escolares les corresponde albergar los centros docentes de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Especial, y atender a las necesidades a que hace referencia la disposición adicional decimoquinta de la citada Ley. En este sentido, el apartado segundo de esta disposición adicional decimoquinta señala que la conservación, el mantenimiento y la vigilancia de los edificios destinados a centros públicos de educación infantil, de educación primaria o de educación especial, corresponderán al municipio respectivo. Dichos edificios no podrán destinarse a otros servicios o finalidades sin autorización previa de la Administración educativa correspondiente.

Asimismo, el apartado tercero de la citada disposición adicional decimoquinta habilita a las Administraciones educativas para afectar, por necesidades de escolarización, edificios escolares de propiedad municipal en los que se hallen ubicados centros de educación infantil, de educación primaria o de educación especial, dependientes de aquéllas, para impartir educación secundaria o formación profesional, en cuyo caso, asumirán, respecto de los mencionados centros, los gastos que los municipios vinieran sufragando de acuerdo con las disposiciones vigentes, sin perjuicio de la titularidad demanial que puedan ostentar los municipios respectivos. Lo dispuesto, continúa diciendo, no será de aplicación respecto a los edificios escolares de propiedad municipal en los que se impartan, además de educación infan-

nez gero, lankidetza-hitzarmena zehaztuko da zerikusia duten administrazioen artean.

Bada, alde batetik, apirilaren 10eko 605/1987 Errege Dekretuaren bidez arautu da, orain arte, udal jabetzako eskola-eraikin publikoak desafektatzeko aldez aurretik eman beharreko baimenaren prozedura. Bestetik, udalbatzekin lankidetzan aritzeko printzipioaren barruan kokatzen da udal jabetzako eskola-eraikin publikoak desafektatzeko prozeduretan hezkuntza-administrazioak, ikastetxeen titularrak eta hezkuntza-zerbitzua ematen duenak, aldez aurretik eman behar duen baimena, udalerriak baitira ikastetxeak hartzen dituzten eskola-eraikin eta espazioen jabeak, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak hamabosgarren xedapen gehigarriaren laugarren atalean aitortzen duenez; atal horren arabera, udalerriek eta hezkuntza-administrazioek lankidetzan jardungo dute, ikastetxe berriak eraikitzeko orubeak bilatzeko orduan.

193/1967 Dekretuaren bidez onartutako Lehen Hezkuntzari buruzko Legearen testu bateratuak ere azaltzen du hezkuntza-administrazioen eta udalbatzen arteko lankidetzaren printzipio hori. Izan ere, testu bateratu horren 52. artikuluaren arabera, udalbatzek lankidetzan jardungo dute eskola-eraikinak eraikitzeko orduan. Gauzak horrela, eta aipatutako artikuluaren arabera, udalerriek ikastetxeak eraikitzeko orubea eman behar dute. Bestalde, uztailaren 3ko 8/1985 Legeak, hezkuntzarako eskubidea arautzen duenak, bigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, «udalbatzek jardungo dute hezkuntza-administrazio eskudunekin lankidetzan, indarreko legeriak xedatutakoaren esparruan, ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko prozesuan, baita derrigorrezko eskolatzearen printzipioa betetzen dela bermatzeko ere».

Toki Araubidearen legerian, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 25.2.n) eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehatzago, termino berberetan berresten da hezkuntza-administrazioen eta udalbatzen arteko lankidetza-printzipio hau.

Halaber, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hamabosgarren xedapen gehigarriak berresten du, ikastetxeetarako udal eraikinak direla-eta, udalerriek eta hezkuntza-administrazioak lankidetzan jarduteko agindua eta hau zehazten du: «eraikin horiek ezin izango dira beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili, tokian tokiko hezkuntza-administrazioak aldez aurretik baimena eman gabe».

til y educación primaria o educación especial, el primer ciclo de educación secundaria obligatoria. Si la afectación fuera parcial se establecerá el correspondiente convenio de colaboración entre las Administraciones afectadas.

Pues bien, de una parte, es el Real Decreto 605/1987, de 10 de abril, el que hasta la actualidad ha venido regulando, con carácter supletorio, el procedimiento de autorización previa a la desafectación de edificios públicos escolares de propiedad municipal. De otra, dicha autorización previa en los procedimientos de desafectación de edificios públicos escolares de propiedad municipal, que realiza la Administración Educativa titular de los centros docentes y prestadora del servicio educativo, se enmarca en un principio de cooperación con las Corporaciones Locales, en cuanto que son los propietarios de los edificios y espacios escolares que albergan los centros docentes anteriormente aludidos, como así lo reconoce el apartado cuarto de la disposición adicional decimoquinta de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, según el cual los municipios cooperarán con las Administraciones educativas correspondientes en la obtención de los solares necesarios para la construcción de nuevos centros docentes.

Este principio de cooperación entre las Administraciones educativas y las Corporaciones Locales se encuentra también recogido en el anteriormente citado Texto Refundido de la Ley de Enseñanza Primaria, aprobado por el Decreto 193/1967, cuyo artículo 52 prevé la colaboración de las Corporaciones Locales en la construcción de edificios escolares. Así, según el citado artículo, los municipios han de proporcionar el solar necesario para realizar las construcciones escolares. La disposición adicional segunda de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación, por su parte, establece que «Las Corporaciones locales cooperarán con las Administraciones educativas competentes, en el marco de lo establecido por la legislación vigente y, en su caso, en los términos que se acuerden con ellas, en la creación, construcción y mantenimiento de los centros públicos docentes, así como en la vigilancia del cumplimiento de la escolaridad obligatoria».

Este principio de cooperación entre las Administraciones Educativas y las Corporaciones Locales se vuelve a reiterar en idénticos términos en la legislación de régimen local, concretamente en los artículos 25.2.n) y 55 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Asimismo, la Disposición Adicional decimoquinta de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, reitera el mandato de cooperación de los municipios y la Administración educativa en cuanto a las edificaciones municipales destinadas a centros educativos, estableciendo que «dichos edificios no podrán destinarse a otros servicios o finalidades, sin autorización previa de la Administración educativa correspondiente».

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 16. artikuluak, Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriaren zehaztutakoa aplikatuz, irakaskuntzaren arloko eskuduntza, maila, kurtso, modalitate eta espezialitate guztietan, ematen dio gure Autonomia Erkidegoari, Konstituzioaren 27. artikuluak eta berau garatzen duten lege organikoek diotenaren, Konstituzioaren 149.1.30. artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenen eta Goi Ikuskaritzak erabaki dezakeenaren kalterik gabe. Izan ere, irailaren 26ko 2808/1980 eta abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuen bidez gauzatu zen irakaskuntzaren arloko funtzio eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko prozesua.

Bestalde, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoarenak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak, besteak beste, funtzio hauek ditu: irakaskuntzaren programazio orokorra eta euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen sorrera, aldaketa eta kenketa, plangintza demokratiko eta parte-hartzaile baten esparruan, kalitateko irakaskuntza emango dela bermatzeko; 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publikoek udalen partehartzea, besteak beste, sustatuko dute. Halaber, aipatutako legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak zehazten duenez, udalbatzek hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan jardungo dute ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko prozesuan, baita derrigorrezko eskolatzea betetzen dela bermatzeko ere.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 16. artikuluak ematen dion eskuduntzaz baliatuz eta maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren seigarren azken xedapenean, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehen azken xedapenean eta Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legearen lehen azken xedapenean ezarritakoaren arabera, Dekretu honek arautzen du toki erakundeen (udalak eta administrazio-batzarrak) jabetza diren eskola-eraikin publikoak erabiltzeko araubide juridikoa eta arlo horretako bere araudia ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari.

Horiek horrela, atariko kapituluak xedapen orokor batzuk jasotzen ditu: helburua, Dekretuak aipatzen dituen eskola-eraikin publikoen definizioa: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak, baita eraikin edo etxe horietan eman ahal diren beste maila, modalitate edo hezkuntza-programa batzuk eta maisu-maistren etxebizitzak ere, hartzen dituzten udal jabetzako eraikin edo etxeak; gainera, Eskola Eraikin Publikoen Erregistroak sortzen dira Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan, hezkuntza-zerbitzu eta helburuei afektatuta dauden esko-

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el artículo 16 del Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye a nuestra Comunidad Autónoma, en aplicación de lo dispuesto en la disposición adicional 1.ª de la Constitución, la competencia en materia de enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y leyes orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30.ª de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía, a cuyos efectos se materializó el traspaso de funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de enseñanza, mediante los Reales Decretos 2808/1980, de 26 de septiembre, y 3195/1980, de 30 de diciembre.

Por su parte, la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, dispone en su artículo 5 que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre otras funciones, la programación general de la enseñanza y la creación, modificación y supresión de los centros que configuran la escuela pública vasca, en el marco de una planificación democrática y participativa, para asegurar la prestación de una enseñanza de calidad; y en el artículo 6 que para el desarrollo de estas funciones, los poderes públicos promoverán la participación, entre otros, de los Ayuntamientos. Asimismo, la disposición adicional novena de la referida Ley establece que las Corporaciones locales cooperarán con la Administración educativa en la creación, construcción y mantenimiento de centros públicos docentes, así como en la vigilancia del cumplimiento de la escolaridad obligatoria.

En consecuencia, en ejercicio de la competencia que le atribuye el artículo 16 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y de las habilitaciones establecidas en la disposición final sexta de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, en la disposición final primera de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación y en la disposición final primera de la Ley 1/1993, de 19 de febrero de la Escuela Pública Vasca, este Decreto regula el régimen jurídico para la utilización de los edificios públicos escolares de propiedad de las entidades locales (ayuntamientos y juntas administrativas) y se dota a la Comunidad Autónoma del País Vasco de su propia normativa en esta materia en el que se recogen las peculiaridades propias de la misma.

Así, el Capítulo Preliminar recoge una serie de disposiciones generales: su objeto; la definición de los edificios públicos escolares a los que se refiere el Decreto como aquellos edificios e inmuebles de propiedad municipal que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial, o cualesquiera otros niveles, modalidades o programas educativos a los que se hubiere destinado dichos edificios e inmuebles, así como las viviendas de maestros y maestras; y se crean los Registros de Edificios Públicos Escolares en las Delegaciones Territoriales de Educación

la-eraikin publikoak, baita dagoeneko hezkuntza-helburu eta zerbitzuetarako erabiltzen ez direnak ere, gaurkotuta edukitzeko asmoz.

I. kapitulua administrazio-baimen eta aitorpenari buruzkoa da, eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko ezinbesteko baldintzak diren aldetik. Administrazio-aitorpenak, ofizioz, eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu eta helburu batzuetarako erabiltzea ahalbidetzen du. Baimena edo aitorpena egiteko prozedura gaurko Administrazio eskudunaren antolaketari lotzen zaio eta tramiteak behar bezain azkar egingo direla bermatzen du. Bestalde, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzen esku uzten da prozeduraren tramitazioa baina Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen sailburuak du baimen edo aitorpena emateko ahalmena. Honi esker beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili ahal izango dira eskola-eraikin publikoak, administrazio-erabakietan nagusi izan behar duen eraginkortasunaren kalterik gabe eta interes orokorra babesteak exijitzen dituen bermeekin. Eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo erabilpen batzuetarako erabiltzeko baimena eskatzen denean, baimen hori Toki Erakundeen ondasunak juridikoki aldatzeko prozedurari lotzea eskatuko da. Prozedura horretan aldaketa hori beharrezkoa eta legezkoa dela egiaztatu beharko da, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. kapituluak arautzen ditu eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko lankidetza-hitzarmenak izenpetu ahal izango diren egoerak.

III. kapituluak azaltzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak Bigarren Hezkuntzari edo Lanbide Heziketari afektatzeko araubide juridikoa.

IV. kapituluak eskola-eraikin publikoak kontserbatu, mantendu eta zaintzeko betebeharrei buruzko xedapen batzuk gehitzen ditu.

Aldi baterako eta azken xedapen gehigarriei dagokienez, etxea edo gela izateko maisu-maistren eskubidea kentzen dela aipatu behar da. 1947ko urriaren 24ko Dekretuaren bidez onartu zen Maisutzaren Estatutuaren 176. eta hurrengo artikuluen bidez aitortzen zen eskubide hori baina anakronikoa da eta ez du gaurko gizartean zentzurik. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak, Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoen otsailaren 19ko 2/1993 Legearen bidez, bere irakasleen kidegoak arautu ditu eta lege horri dagokio, azken batean, irakasleen estatutua garatzea.

Azkenik, sei hilabeteko epe bat zehazten da, Dekretu hau indarrean sartzen denean, eta apirilaren 10eko 605/1987 Errege Dekretuak, udal jabetzako eraikinak

como un instrumento idóneo para mantener actualizado los edificios públicos escolares afectados a los servicios y finalidades educativas, así como aquellos que ya han dejado de servir a las finalidades y servicios educativos.

El Capítulo I se dedica a la autorización y declaración administrativas como requisitos indispensables para poder destinar los edificios públicos escolares a otros servicios o finalidades. La declaración administrativa supone posibilitar de oficio que los edificios públicos escolares se destinen a otros servicios y finalidades. El procedimiento de autorización o declaración se ajusta a la organización de la actual Administración competente, garantizando la adecuada celeridad. Por otra parte, la tramitación del procedimiento queda confiado a las Delegaciones Territoriales de Educación, pero manteniendo la autorización o declaración en el Consejero o Consejera competente en materia de educación, lo que permitirá destinar los edificios públicos escolares a otros servicios o finalidades, sin menoscabo de la eficacia y eficiencia que han de presidir las decisiones administrativas, y con las garantías que la salvaguarda del interés general exige. Cuando se solicite la autorización para destinar los edificios públicos escolares a otros servicios y finalidades, se requerirá que la misma se ajuste al procedimiento que para la alteración jurídica de los bienes de las Entidades Locales, en el que se acrediten su oportunidad y legalidad, tal y como determina el artículo 8 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

El Capítulo II regula los supuestos en los que se podrán suscribir convenios de colaboración para la utilización de los edificios públicos escolares en otros servicios y finalidades distintos.

El Capítulo III contiene el régimen jurídico de la afectación de los centros docentes de educación infantil, de educación primaria y de educación especial a la educación secundaria o la formación profesional.

El Capítulo IV incorpora una serie de disposiciones relativas a las obligaciones de conservación, mantenimiento y vigilancia de los edificios públicos escolares.

Por lo que se refiere a las disposiciones adicionales, transitoria y final, conviene destacar la supresión del derecho a casa-habitación de los maestros y maestras reconocido por el artículo 176 y siguientes del Estatuto del Magisterio, aprobado por el Decreto de 24 de octubre de 1947, por tratarse de un derecho anacrónico que ha dejado de tener sentido en la sociedad actual y tener la Comunidad Autónoma del País Vasco regulados sus cuerpos docentes en la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria, a quien corresponde, en definitiva desarrollar el estatuto docente.

Por último, se establece un plazo de seis meses para que las entidades locales que a la entrada en vigor de este Decreto estén utilizando los edificios públicos es-

desafektatzeko aldez aurretik eman beharreko baimenerako prozedura zehazten duenak, xedatutakoaren arabera, desafektatu aurretik eman beharreko baimenik gabe eskola-eraikin publikoak beste erabilpen, zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzen ari diren toki erakundeek beren egoera erregularizatu dezaten, Dekretu honek xedatutakoaren arabera.

Azkenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dioenarekin bat etorrita eta Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 6an egindako bilkuran aldez aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren,

EBATZI DUT:

## ATARIKO KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Helburua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-eraikin publikoak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza ez diren beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili ahal izateko araubide juridikoa erregulatzea du Dekretu honek helburu.

2.– Administrazio-baimen edo aitorpenaren bidez edo Dekretu honetan ezarritako terminoetan lankidetza-hitzarmena izenpetuz erabili ahal izango dituzte bakarrik toki erakundeek beste zerbitzu edo helburu batzuetarako eskola-eraikin publikoak.

*2. artikulua.–* Eskola-eraikin publikoa.

Dekretu honen ondorioetarako, horrela definituko dira eskola-eraikin publikoak: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak hartzen dituzten eta Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen Sailari afektatutako udal jabetzako eraikin eta etxe guztiak. Halaber, eraikin eta etxe horietan eman ahal izango diren beste maila, modalitate edo hezkuntza-programa batzuk, baita maisu-maistren etxebizitzak ere, sartuko dira eskola-eraikin publikoaren definizioan.

*3. artikulua.–* Gizarte-erabilpenak.

Dekretu hau ezin izango zaio udal jabetzako eskola-eraikin publikoen eraikin eta instalazioak hirugarren pertsonek gizarte-helburuetarako erabiltzeko erregimenari aplikatu. Izan ere, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazio publikoak ikastetxeen urteko programazioetan sartzen ez diren jardueretarako erabiltzea arautzen duenak, arautzen du erabilpen hori.

*4. artikulua.–* Lankidetzaren printzipioa.

Toki erakundeek eta hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen Sailak lankidetzan jardungo dute eskola-eraikinak planifikatu eta eraikitzeko, eskola-eraikinen

colares en otros usos, servicios o finalidades sin la autorización previa a la desafectación establecida en el Real Decreto 605/1987, de 10 de abril, por el que se regula el procedimiento de autorización previa a la desafectación de los de propiedad municipal, procedan a la regularización de la situación de acuerdo con lo previsto en este Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 6 de mayo de 2008,

DISPONGO:

## CAPÍTULO PRELIMINAR
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– Es objeto de este Decreto la regulación del régimen jurídico para la utilización de los edificios públicos escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco en otros servicios o finalidades distintos de los servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial.

2.– Los edificios públicos escolares únicamente podrán ser destinados por los entes locales a otros servicios o finalidades mediante la correspondiente autorización o declaración administrativas o mediante la suscripción del oportuno convenio de colaboración en los términos establecidos en este Decreto.

*Artículo 2.–* Edificio público escolar.

A los efectos de este Decreto, se entenderá por edificios públicos escolares todos aquellos edificios e inmuebles de propiedad municipal afectados al Departamento competente en materia de educación que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial, o cualesquiera otros niveles, modalidades o programas educativos a los que se hubiere destinado dichos edificios e inmuebles, así como las viviendas de maestros y maestras.

*Artículo 3.–* Usos sociales.

No será de aplicación este Decreto al régimen de utilización, con fines sociales, por terceras personas de los edificios e instalaciones de los edificios públicos escolares de propiedad municipal regulada por el Decreto 76/2008, de 6 de mayo, de regulación de la utilización de los edificios e instalaciones docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi para actividades no comprendidas en las programaciones anuales de dichos centros.

*Artículo 4.–* Principio de cooperación.

Las entidades locales y el Departamento competente en materia de educación cooperarán en la planificación y gestión de las construcciones escolares, en el es-

programa zehazteko lurralde eremuaren hezkuntza-premiak aztertzeko eta eskola-eraikin publikoen kontserbatze, mantentze eta zaintza egiteko orduan.

*5. artikulua.–* Eskola-eraikin publikoen lurralde erregistroak.

1.– Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen Sailaren kudeaketa eta etengabeko informaziorako barne tresna gisa, eskola-eraikin publikoen lurralde erregistroak sortzen dira. Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen Sailari afektatutako udal jabetzako eraikin eta etxeek, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak edo eraikin edo etxe horietan eman ahal diren beste maila, modalitate edo hezkuntza-programa batzuk, baita lurralde historiko bakoitzeko maisu-maistren etxebizitzak ere, hartzen dituztenek, emango dute lurralde erregistro horietan izena.

2.– Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak bere lurralde eremuari dagokion eskola-eraikin publikoen lurralde erregistroa kudeatuko du. Hezkuntza lurralde ordezkariaren ebazpenaren bidez emango da udal jabegokoak diren eraikin eta etxe publikoek, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak edo eraikin eta etxe horietan eman ahal diren beste maila, modalitate eta hezkuntza-programa batzuk, baita maisu-maistren etxebizitzak ere, hartzen dituztenek, lurralde erregistro horietan izena emateko prozesua. Lurralde ordezkariaren ebazpenaren bidez emango da izena emateko agindua.

3.– Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak, edo eraikin eta etxe horietan eman ahal diren beste maila, modalitate edo hezkuntza-programa batzuk, baita maisu-maistren etxebizitzak ere, hartzen dituzten udal jabetzako eraikin publikoek eta etxeek izena emateko prozesuak atal hauek, gutxienez, sartuko ditu: eraikinaren identifikazioa, eraikinaren eta beronetan kokatutako ikastetxearen izena hartuko duena; kalea, udalerria eta eraikinaren jabea den toki erakunderik txikiena hartuko dituen helbidea; Dekretu honen I. kapituluan xedatutakoaren arabera beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko baimena eman bada, erabilpen hori baimendu edo aitortzeko Hezkuntzaren arloko sailburuak eman duen aginduaren data; halaber, agindu horrek eraikin osoari edo zati bati bakarrik eragiten dion adierazi behar da.

4.– Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen sailburuaren aginduaren bidez puntu hauek arautuko dira: erregistro horiek hartu beharko duten era, berorietan sartu ahal diren beste puntu batzuk eta izena emateko prozeduraren garapena.

tudio de las necesidades educativas del ámbito territorial correspondiente para el establecimiento del programa de construcciones escolares y en la conservación, mantenimiento y vigilancia de los edificios públicos escolares.

*Artículo 5.–* Registros Territoriales de Edificios Públicos Escolares.

1.– Como instrumento interno de gestión e información permanente del Departamento competente en materia de educación, se crean los Registros Territoriales de Edificios Públicos Escolares en los que se inscribirán los edificios públicos e inmuebles de propiedad municipal afectados al Departamento competente en materia de educación que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial, o cualesquiera otros niveles, modalidades o programas educativos a los que se hubiere destinado dichos edificios e inmuebles, así como las viviendas de maestros y maestras, de cada Territorio Histórico.

2.– Cada Delegación Territorial de Educación gestionará el Registro Territorial de Edificios Públicos Escolares correspondiente a su ámbito territorial. La inscripción de los edificios públicos e inmuebles de propiedad municipal que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial, o cualesquiera otros niveles, modalidades o programas educativos a los que se hubiere destinado dichos edificios e inmuebles, así como las viviendas de maestros y maestras se realizará mediante resolución del Delegado Territorial de Educación que ordene dicha inscripción.

3.– La inscripción de los edificios públicos e inmuebles de propiedad municipal que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial, o cualesquiera otros niveles, modalidades o programas educativos a los que se hubiere destinado dichos edificios e inmuebles, así como las viviendas de maestros y maestras comprenderá, al menos, los siguientes asientos: identificación del inmueble, que incluirá la denominación del edificio y del centro docente ubicado en el mismo; domicilio que abarque la dirección, municipio y, en su caso, ente local menor propietario del inmueble; servicios docentes a los que se destina el inmueble; en el caso de que se hubiere autorizado o declarado, de acuerdo con lo dispuesto en el Capítulo I de este Decreto, ser susceptible de utilización para otros servicios o finalidades, la fecha de la Orden del Consejero o Consejera competente en materia de educación autorizando o declarando dicha utilización, así como indicación de si la misma afecta a la totalidad del inmueble o únicamente a parte de ella.

4.– Mediante Orden del Consejero o Consejera competente en materia de educación se regulará la forma que deberá adoptar tales registros, otros posibles asientos a integrar en los mismos, así como el desarrollo del procedimiento de inscripción.

I. KAPITULUA
ADMINISTRAZIO-BAIMENA ETA AITORPENA

*6. artikulua.–* Baimena eta aitorpena.

Toki erakundeek administrazio-baimena edo behar den aitorpena, Dekretu honetan arautuko terminoetan, ezinbestean eduki beharko dute, eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu eta helburu batzuetarako erabiltzeko.

*7. artikulua.–* Egitatezko egoerak.

1.– Egoera hauetakoren bat bete beharko da eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili ahal izateko administrazio-baimen edo aitorpena emateko:

a) Irakaskuntzaren zerbitzu publikoa emateko eraikina, guztiz edo zati batean, beharrezkoa ez izatea.

b) Teknikoek aldez aurretik aztertu ondoren ondorio horretara iristen denean: eskola-eraikin publikoaren, edo beste helburu batzuetarako erabiltzea proposatzen den zatiaren, baldintza edo ezaugarriak, hezkuntza-helburuurako egokiak ez izatea.

c) Zuen zerbitzu edo helburutik desafektatzea eskatzen duen beste edozein zirkunstantzia gertatzea. Zirkunstantzia hori behar bezala justifikatuta geratu beharko da baimena edo aitorpena emateko aldez aurreko espedientean.

2.– Etxebizitzen kasuan, aurreko arrazoietako baten bat gertatzeaz gain, eman ahal izango da ondorengo zirkunstantziak gertatzen diren eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo erabilpen batzuetarako erabiltzeko baimena:

a) Eraikina hondamendiitzat jo izana. Lursailen beraien afektazioari eutsi ahal zaio, etxea eraistea dela-eta afektatuei legozkiekeen kalte-ordainak udalerriak bere gain hartzearen kalterik gabe.

b) Eskolatze-premiengatik, gelak eta maisu-maistren etxebizitzak integratzen dituen eta etxebizitzetarako espazioak gutxitu edo aldatu behar diren eraikin batean kokatuta dagoen ikastetxe bat zabaltzeko obrak egin behar direnean. Kasu honetan, Hezkuntzaren arloko eskuduntzak dituen Sailera afektatuta jarraituko du eraikinak, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko irakaskuntza-zerbitzuak hartzen dituen eskola-eraikin publikoa den aldetik.

c) Etxebizitzen kopuruak herriko maisu-maistren plantila gainditzen duenean.

d) Etxebizitzaren esleipendunak irakaskuntza publikoan zerbitzuak emateari uzten dionean, beste herri batzuetako ikastetxeetara lekuz aldatzen denean edo etxe-

CAPÍTULO I
AUTORIZACIÓN Y DECLARACIÓN ADMINISTRATIVAS

*Artículo 6.–* Autorización y declaración.

Para destinar los edificios públicos escolares a otros servicios y finalidades, será requisito ineludible que las entidades locales dispongan de la autorización administrativa o de la correspondiente declaración en los términos regulados en este Decreto.

*Artículo 7.–* Presupuestos de hecho.

1.– La autorización o declaración administrativas para destinar los edificios públicos escolares a otros servicios o finalidades, sólo procederá cuando concurran alguno de los siguientes supuestos:

a) Cuando el inmueble deje de ser necesario, total o parcialmente, para el desarrollo del servicio público de la enseñanza.

b) Cuando, previa peritación técnica, las condiciones o características físicas del edificio público escolar, o la parte cuya autorización o declaración se propone, no resulten adecuadas a la finalidad educativa a la que está afecto.

c) Cuando concurra cualquier otra circunstancia de la que se deduzca la conveniencia o necesidad de desafectarlo del servicio o finalidad a la que estaba destinado. Dicha circunstancia deberá quedar justificada debidamente en el expediente previamente a la concesión de la autorización o emisión de la declaración.

2.– En el caso de las viviendas, además de la concurrencia de alguna de las causas anteriores, también podrá concederse la autorización o declarar susceptible para otros servicios o finalidades los edificios públicos escolares en los que concurran las siguientes circunstancias:

a) Por declaración de ruina, pudiendo mantenerse la afectación de los propios terrenos sin perjuicio de que el municipio se haga cargo de las indemnizaciones que puedan corresponder a los afectados o afectadas por la demolición.

b) Cuando por necesidades de escolarización sea conveniente realizar obras para la ampliación de un centro ubicado en un edificio donde se integren conjuntamente aulas y viviendas de maestros y maestras y deba reducirse o modificar los espacios dedicados a viviendas, en cuyo caso seguirá afectado al Departamento competente en materia de educación como un edificio público escolar que alberguen servicios docentes de educación infantil, educación primaria o educación especial.

c) Cuando el número de viviendas exceda de la plantilla de maestros y maestras de la localidad, derivado de las enseñanzas de escolarización.

d) Cuando el adjudicatario o adjudicataria deje de prestar servicio activo en la enseñanza pública o se traslade a centros radicados en otros municipios y no se ha-

bizitza izateko eskubidea duten maisu-maistren prozeduran esleipena eskatu ez denean.

3.– Aurreko ataletan aipatutako egoerak behar bezala justifikatuta geratu beharko dira eskola-eraikin publikoen administrazio-baimen edo aitorpenaren espedientean.

*8. artikulua.*– Alde baten eskariz prozedurari hasiera ematea.

1.– Toki erakundeek eskatu ahal izango dute eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko administrazio-baimena. Aldatzeko prozedurari, bai ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duenak, aipatzen dituen ondasunen izaera juridikoa, bai eskola-eraikin publikoak erabiliko diren helburuak aldatzeko, hasiera emateko organo eskudunaren akordio edo ebazpenarekin batera joan beharko du eskaerak.

Halaber, eskola-eraikin publikoen izaera juridikoan edo erabilpenean nahi den aldaketaren arrazoiak eta legezkotasuna egiaztatu beharko dira, baita Dekretu honen 7. artikuluan azaldutako egoeretakoren bat agertzen denean ere.

2.– Beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko administrazio-baimena eskatzen den eskola-eraikin publikoa dagoen lurralde historikoko hezkuntza ordezkariari bidali beharko zaio eskaera.

*9. artikulua.*– Prozedura ofizioz hastea.

1.– Hezkuntza lurralde ordezkariek, arrazoitutako ebazpenaren bidez, hasiera eman ahal izango diote eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili ahal izango direla ofizioz aitortzeko prozedurari, betiere Dekretu honen 7. artikuluan azaltzen diren egoerak gertatzen baldin badira.

2.– Beste zerbitzu eta helburu batzuetarako erabili nahi den eskola-eraikin publikoaren jabea den toki erakundeari jakinarazi beharko zaio prozedurari hasiera emateko eskatzen duen ebazpena, hogei eguneko epe batean egokitzat jotzen dituen alegazio eta agiriak aurkez ditzan.

*10. artikulua.*– Tramitazioa.

1.– Eskola-eraikin publikoak beste zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko prozedurari hasiera emateko era edozein dela ere, administrazio-espedienteari gehitu beharko zaizkio 7. artikuluan azaldutako egoerak egiaztatzen dituzten txosten tekniko eta adituen txostenak eta, betiere, puntu hauetan hitz egin beharko dute:

ya solicitado la adjudicación en el correspondiente procedimiento por parte de los maestros y maestras con derecho a disponer de viviendas.

3.– Los supuestos mencionados en los apartados anteriores deberán quedar debidamente justificados en el expediente de autorización o declaración administrativa de los edificios públicos escolares.

*Artículo 8.*– Inicio a instancia de parte.

1.– Las entidades locales podrán solicitar la autorización administrativa para destinar los edificios públicos escolares a otros servicios o finalidades. La solicitud deberá acompañarse del acuerdo o resolución del órgano competente para iniciar el procedimiento de alteración, bien de la calificación jurídica de los bienes a que se refiere el artículo 8 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, bien de los usos a los que se vayan a destinar los edificios públicos escolares.

Asimismo, deberá acreditarse la legalidad y razones de la alteración que se pretende en la calificación jurídica o en los usos de los edificios públicos escolares, así como la concurrencia de alguno de los supuestos enunciados en el artículo 7 de este Decreto.

2.– La solicitud deberá dirigirse al Delegado o Delegada de Educación del Territorio Histórico en el que se ubique el edificio público escolar para el que se inste la autorización administrativa para su destino a otros usos o finalidades.

*Artículo 9.*– Inicio de oficio.

1.– Los Delegados o Delegadas Territoriales de Educación podrán iniciar, mediante resolución motivada, el procedimiento para declarar de oficio que los edificios públicos escolares son susceptibles de destinarse a otros servicios o finalidades, siempre que concurran las situaciones a que se refiere el artículo 7 de este Decreto.

